

Desagertzen diren gauzak



Piku eta Marikalanbre gauza beldurgarriei buruz ari dira hizketan. Halako batean, Pikuk hau aitortu dio Marikalanbri:

–Gauzak desagertzeak ere beldurtzen nau.

–A bai? –esan du orduan Marikalanbrek–. Ba niri desagertzen diren gauzak oso dibertigarriak iruditzen zaizkit. Adibidez, badakizu nola desagerrarazi txanpon bat ukitu gabe?

–Eeez. Nola? –jakin nahi izan du Pikuk, jakin-minez beteta eta batere beldurrik gabe.

–Begara!



Txanpona desagerrarazten

Litekeena da txanpon bat desagerraraztea, edalontzi baten azpian jarrita eta edalontzia urez betez?

Materiala

Txanpon bat
Edalontzi garden bat
Urez betetako txarro bat

Zer egin

Jarri txanpona edalontziaren azpian. Egiaztatu ondo ikusten dela beiraren beste aldean. Txanponari begiratzeari utzi gabe, hasi edalontzia urez betetzen. Halako batean, zerbait gertatu dela ohartuko zara: txanpona desagertu egin da! Edalontzia urez betetzen jarraituz gero, ordea, berriz agertuko da.

Zer gertatu da

Argiaren norabidea ingurunearen araberakoa da, eta, airetik uretara igarotzean, aldatu egiten da. Horregatik, une batzuetan, argiaren norabidea zein den eta ikuslea non dagoen, txanpona ez da ikusten.

Marikalanbrek txanpon bat, txarro bat ur eta kristalezko edalontzi huts bat jarri ditu mahaian.

–Piku, begiratu edalontziari albotik –eskatu dio Marikalanbrek.

Gero, edalontzia hartu eta txanponaren gainean jarri du.

–Ikusten duzu txanpona? –galdetu dio Marikalanbrek.

–Bai –erantzun du Pikuk.



Jarraian, Marikalanbrek txarroa hartu eta ura isuri du edalontzian, ia erdiraino betez.

–Eta orain?

–Ez, orain ez! Desagertu egin da! –egin du oihu Pikuk, erabat harrituta–. Nola, baina?



Baina Marikalanbrek ez dio erantzun; desagertu egin da: sukalde aldera joan da, askariaren bila.